

ARABAKO BERTSOZALE ELKARTEAREN

BERRI PAPERA



AMAIA ZENTROA
Benito Perez Galdos Z/G
01002 Gasteiz
Araba
E.: araba@bertsozale.eus
T.: 945 01 05 05
www.bertsozale.eus/araba



Eskerrik asko txosneroak!

Itsasaldean izarra, ilargia zeruan, mendi altuan elurra...



Udazkena etorri da eta udako hosto erorien antzera dator lehen berrpaper hau, uda goxo oroituz, hostoz hosto biluztu eta datorrenari larrugorritan ongi etorria emateko prest! Eta holaxe joan zen uda, Gasteizko kanpusean zuhaitz bat landatu genuen iaz eta aurten berriz ere ureztatu, kimatu eta ongarriz bete dugu. Orain udazkenak enborra bistan utzi du, eta oraindik mehe xamarra izan arren, fruituak eman ditu, iaz baino bi aldiz gehiago, eta ez dauka itxura txarrik.

2014ean landatutako zuhaitzak susturriak pittinka-pittinka errotu ditu txosna-gunean.

Ez da izango oraindik itzal handikoa baina eguzkitik babesteko balio du. Eta ez digu emango aurtengo neguari aurre egiteko behar ditugun behar beste fruitu baina goserik ez pasatzeko moduko uzta utzi digu. Eta batez ere,, gure gurea da eta gure kabuz atera dugu aurrera.

Aurrerantzean ere nahi eta behar ditugun fruituak eman ahal izateko, eta pisuari eusteko, adar eta adaska gehiago beharko dira, ateratakoak puskatuko dira bestela.

Eskerrik beroenak aurtengo zuhaitzaren adar eta adaxkei, esku bete lan ibili ziren borondatezko bertsozale, bazkide, bertso-lari, gai-jartzaile, epaile, bertso-eskola, senide eta lagunei... muntatzen, barran, sukaldean, garbitzen, jasotzen, loari eta bizitzari orduak kenduz, ilusioz, maitasunez eta elkartasunez gainezka. Elkartearen proiektua osotasunean garatzeko, burujabeagoa izan dadin, ezinbestekoa izan da zuen ahalegina eta laguntza. Egon ziur, bueltan etorriko da, Arabako bertso-laritzen negurako fruituen otarra, ilusio, maitasun eta elkartasunez jaso bezain betea

KORA

Ez dugu joan nahi eskolara, uda da askoz hobea!
Baina gustora joaten gara bertso-eskolara ordea!



Zatoz
bertso-eskolara!

Argitalpenaren
laguntzaileak



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

www.alava.net



Jarri mingaina dantzan!

Arabako bertso-eskolak martxan eta azaroaren 14ean, Agurainen EHko Bertso-eskolen eguan

Uxue Diaz de Cerio

Bazijoank iraila eta bazeto-
rek urria!

Ta bertso eskolek kantuan
hasi nahi ditenk. Ez adi gera
bertso eskolan aulkirik gabe!
Ez adi gera eskoba kirtenari
zenbat maite duan esan
gabe! Ez adi gera errimarik
gabe!

Hemen dira berriz ere Bertso
Eskolak! Arabako txoko
denetara zabalduak.

Ez ahaztu lagun, jarri buruan
eta eskumuturretan izerdi-
takoak, jeitsi "mula"tik
Txirritaren azken bertsuak
mp5ean entzuteko eta hasi
gogor entrenatzen,
azaroaren 14an Agurainen,
Euskal Herriko Bertso Esko-
len eguna ospatuko dink
eta! Erakutsi zenbat balio
duen 8 abizen konpueto
izateak!

Jarri mingaina dantzan!

AURKEZPENA

Zatoz Bertso-Eskolara
Haur, gazte eta heldu taldeak

Gasteizen irailaren 29an, asteartea, 17:30ean Amaia Zentroan

Zuian irailaren 29an, asteartea, 17:30ean herriko plazan

Laudion urriaren 5ean, astelehena, 17:30ean Udaletxean

Amurrion urriaren 7an, asteazkena, 17etan Kultur Etxean

Mendialdean urriaren 7an, asteazkena, 18:30ean Kanpezuko Kultur Etxean

Legution urriaren 9an, ostirala, 16:30ean Kultur Etxean

Izarran urriaren 13an, asteartea, frontoian

Agurainen urriaren 16an, ostirala, 17:30ean Arramel kaleko lokalean

Aramaion urriaren 16an, ostirala, 19etan Sastiñan

Arabar Errioxan urriaren 20an, asteartea, Oiongo IKA euskaltegian

Zalduondon urriaren 24an, larunbata, 16etan Udaletxean

JARRI MINGAINAK DANTZAN!

Arabako gazteak plazara

3 saio, 12 bertsolari gazte eta aurrera egiteko gogo asko

Iñaki Viñaspre

Arabako bertsoa indartsu dago eta badatoz kimu berriak. Kimuek hasteko baina lur eta ur beharra izaten dute. Asmo horrekin sortu dugu "Gazteak plazara", hamazazpi hogeita hiru urte bitarteko bertsolariei plazan hasteko edota hazteko aukera emateko.

Arabako bertso eskola ezberdinetako kideek parte hartuko dute eta bertso eskola horiek izango dira saioen antolatzaile. Bertsolariek eta bertsozaleek gozatuko dituzten saioak egituratzea zen helburua eta, kartela ikusita, ziur gaude hala izango dela.

GAZTEAK PLAZARA 2015

LEGUTIO, GAZTE GUNEAN
URRIAK 23, OSTIRALA, 19:00
 Peru Abarrategi, Unai Argote, Maria Fuentes, Egoitz Iraider Gai-jartzailea: Nieves del Alamo

ZALDUONDO, LAZARRAGA ETXEAN
AZAROAK 6, OSTIRALA, 19:00
 Asier Rubio, Irati Ruiz de Pinedo, Maria Izaga, Unai Etxenausia Gai-jartzailea: Marta Ugarte

ARAMAIO, SASTIÑAN
AZAROAK 27, OSTIRALA, 19:00
 Xabi Igoa, Jon Sanchez, Maddalen Arrausi, Iñaki Lertxundi Gai-jartzailea: Oier Suarez

Antolatzailea

Babeslea

 Arabako Foru Aldundia
 Diputación Foral de Álava
 www.alava.net

Laguntzaileak
 Zalduondoko bertso-eskola
 Legutioko bertso-eskola
 Aramaioko bertso-eskola

AGENDA!

Urriak 03 BARANBIO	BERTSO BAZKARIA	Garratzatxuko txokoan, 15:00 Sustrai Colina eta Jon Maia Anolatzaila: Belaiki Elkarte
Urriak 04 IZARRA	PLAZA LIBREA	Jaiak, 13:30 Arkaitz Estiballes, Oihane Perea eta Ruben Sanchez Anolatzaila: Jai Batzordea eta Bertso-eskola
Urriak 16 ARAMAIO	PLAZA LIBREA	Bertso-eskolaren ikasturte hasiera, 19:30 Julio Soto eta Unai Gaztelumendi Anolatzaila: Bertso-eskola

BAZENEKIEN?



ERROTA



Entzuuuuun! Entzuuuuun!

Bertsoak plazan, kalean, tabernan... entzuten dira. Eta irratian? Irratian ere bai. Erne! Araba da munduko, galaxiako eta unibertsoko bertso-irratsaio gehien duen herrialdea. Hiru dira:

Lautadako Txindurri irratian laster helduko diote POTOAK HANKALUZETAN 3. denboraldiari. Geolito, Melonzio... aurkezle sortarekin.

Radio Vitoriak hasi da dagoeneko. Ostiralero, 17:30ean, Beñat Zama-lloak gidatuko du ordu erdiko ERROTA bertso-irratsaioa.

Hala Bedin urriaren hasieran hasiko dira, asteazkenean 20:00etan. N.garren urtea da. Gau-za eta Pontxo eta auskalo nor gehiago arituko dira.

ZERNAHI

PARTE HARTU NAHI?



Xabi Igoa

Gogoan al dituzu Elkarteak 2003an ahozko kantu inprobi-satuari buruz antolatutako topaketak? Orduetik 12 urte pasa dira eta Bertsozale Elkar-tean dagoeneko piztu zaie berriro nazioarteko beste topaketa bat antolatzeko arra. Ezin geldi egon...

Nik pertsonalki badut gogoan austriarren zerbezekin mozkortzeko, sardoan trajee-kin "Maritxu Kajoi" dela pent-satzeko, Jon Sarasuaren ondokoak duen gorroa janzte-ko... eta zuk?

2016ko udaberrian hasiko da dena, baina dagoeneko elkar-teak hainbat talde eragile sortu ditu, beraz, arra piztu bazaizu, ohikoa den bezala "marroiak" banatzeko gertu gaude!

